


MANO DURA



TXILLARDEGI

«Mano dura. Eso, es: eso es lo que fata aquí... Oraindik ere badantzut esaldia. Atzo entzun nuen, Donostian. Donostiako kaleetan, bai; eta bertako seme bati entzun: «aquí lo que falta es disciplina, respeto, orden»... esaten zidan.

Eta gaur, Erramu igande honetan, Bilbon manifestazio harrigarri hori munduaren aurrean gertatu delarik, oraindik ere entzuten bide dut belarrietan bezperako esaldi garratza: «Aquí falta mano dura»...

Eta kilometrotan barrena, eta ia-ia hiru orduz, herrenka pasa ziren ikurriñak, eta etengabe euskal kantu abertzaleak entzun. Jendetzaren kopurua gaurko maila horretarako gero, nekez eman daiteke zifrarik. Zenbat ote ginen Bilbon? Ehun mila? Berrehun mila agian? Ez dakit. Hor nunbait, nik uste.

Kalean gora eta kalean behera ikusi ditugu segidan, indartsu eta jendetsu, abertzaleen hiru multzo nagusiak. Herri Batasuna-rena zihonan aurrenik, ostez eta istoriaz gazteena, eta aisa hiruetan handiena. Euskadiko Ezkerrarena zertoren bigarrenik, handia ere bai, gudari-aurpegi ezagunez hornitua; eta PNV-arena zerrai-kion ondotik, gaitza, eta gudari zahar eta famatuz ez urriago. «Goiko» agintariek gaurko manifestazioari buruz zer eskatu zuten ongi ez dakigularik ere, hiruetan entzun ditugu, orroaka, gar bertsuaz emanik, **askatasunaren aldeko**oihu berberak; eta hiruetan ere su baxar bat: **inperialismoaz aski, eta Euskal Herriaren lema euskaldunei.**

Berrogei urtez zapaldurik egon ondoren, berrogei urtez fazismoak demografi-aldakuntza sakonetan esperantzak izkutuan jarri ondoren, berrogei urtez goitik eta behearaino eta edozertan gure herria ukaturik arrastaka erabili ondoren, horra hor mirari lirudikeena: hiru urte aski izan baitira gure herri zanpatua inoiz baino gartsukiago esnatzeko, eta inoiz baino ausarkiago hau oihukatzeko: «Gora Euskadi Askatuta!».

Hots, zer erantzuten zaigu? Hona hemen laburki zer: «El asunto de la autonomía vasca no se empezará a estudiar hasta el otoño»... Edo-ta, buruz buru, baina gordinkiago, neronek entzun nuen beste hori: «Aquí lo que hace falta es mano dura»...

Norena, ordea, «esku latz» hori? Inperialismoarena ala gurea? Oraindik ere «esku latza» gogorrago eta latzago behar, omen; baina... gure kontra!

Ez dakit gaurko manifestazio eder eta abertzale hau baino ederragorik eta abertzaleagorik Euskadik inoiz ezagutu ote duenez. Nik ez behintzat. Udal-hauteskundeetan izan ditugun

ondorioak baino hoberik ere, era berean, ez dut uste gure herriak inoiz ezagutu duenik.

Jarri zaizkion traba eta oztopobide guztien gainetik, beraz, gero eta ozenkiago mintzo da gure herria; eta hau esaten du argi eta garbi: **ASKATASUNA ALA HIL!**

Hala ere, eta arrapostu gisa, zer entzuten dugu? «No cederemos a la provocación. Aquí hace falta mano dura. Los vascos se están envalentonando demasiado». Horra zer entzuten dugun.

Nola galdu genituen, ordea, geure Foruak 1839-an eta 1876-an? Nola galdu genuen 1937-an geure lehendabiziko Autonomia? Nola galdu genuen zergak ez ordaintzeko eskubidea, nola soldauzkara joan behar ez izatea, nola euskara eta euskararekiko amodio? Nola galdu ditugu geure lurraldeak, eta geure baserriak, eta geure lantegiak, eta geure gazte langabe-tuak? Nola hartu dituzte gure aberkideak Due-son, eta Gursen, eta Puerto de Santa-Marian, eta Sorian? Nola galdu dugu, galdu dugun guztia, odoletan, ezinestean, eta indarka lotsa-gabean baizik? Esku leunez ala? Mendebete t'ardi honetan, zer utzi da gure esku? Berrogei urte horretan bereziki, zer ezagutu du gure herriak «mano dura» baizik? Nola hil ziren Zumalakarregi, eta Ramón Azkue, eta Argala, eta beraien jarraitzaileak? Nola hil ziren Aitzol, Lauaxeta eta Agurtzane Arregi? Gripez ala?

Ez bide zaie aski, ordea.

«Mano dura» ez, baina **JUSTIZIA** behar da hemen. **ZUZENBIDEA** behar du gure herriak. Zuzenbide apur bat behintzat, zuzenbide izpi bat, justizi amiñi bat, oinarrizko eskubide batzu bederen. Bere burua nahi duen bezala gidatzeko eskubidea inori ukatu ezin zaiolako, hain zuzen, bere naziotasunari, bere izatasunari eusteko tresna minimo batzu behar ditu. Hauen kontra dagoena, inperialismoaren ekin-tzak azken bururaino eramatearen alde dago.

Oraindik ere gure herriaren trajeria ulertu ez dutenek, oraindik ere gure oinazeen sakonak eta latzak hunkiturik ez daudenek, horiek guz-tiek «mano dura» ez, baina **FAZISMOA** eska-tzen dute guretzat. Fazismo gehiago eta ge-hiago; bihotzondoan Francisco Franco berbera daukatelarik.

Hots, berrogei urte fazismoa jasan ondoren «mano dura» inori erantsi behar baldin bazaio herri honetan, irakurle hori, fazismo gehiago eskatzen duten horiei behar zaie erantsi; eta ez guri. Berrogei urte odoltsu eeta lotsagarrien ondoren, berriro ere gugandik eta gure zaineta-tatik odol gehiago eta gehiago isurerazi nahi dutenei.

«Mano dura»? Bego! Baina gure herriak burua altxatzea inolaz ere jasan ezin dezaketen fazista horien kontra eskatzen dugu guk.